

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Asteartea, 2013ko martxoaren 19a. IX. urtea. 2.563. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Iñaki Epelde margolari tolosarrari azken agurra eman diote lagun artean

Azken urteak gaixotasun larri batekin bizi ondoren, pasaden ostiralean hil zen artista tolosarra, 54 urterekin; jendetza elkartu zen bera agurtzeko ekitaldian

Artistaren jardun etengabea, haren «umiltasuna, gizatasuna eta isilean egindako lan guztia» nabarmendu dituzte gertuko lankide eta lagunak **02-3**

Manipulazio salaketak, Tolosako Hondakinen Mahaian


EAJk, PSE-EEk eta Tolosa Txukun-ek mahaia utzi dute, «gardentasun faltagatik»; udal gobernuak «alderdikeriaz aritzea» egotzi die **07**

Txapel bana Ibarako sokatira taldeentzat

Euskal Herriko Txapelketan, neskek 500 kiloko mailan eta mutilek 560 kilokoan lortu dute **06**



Ibarako sokatira taldeko neskek, txapelarekin. HITZA



EMAZ

→ **Udaletxe berria Berastegin.** Hilabate luzez egindako lana ikusi ahal izan zuten larunbatean egindako Berastegiko udaletxe berriaren inaugurazioan. Herritarrez eta udal ordezkarienez gain, Martin Garitano ahaldun nagusia eta Iñaki Errazkin Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako diputatua izan ziren bertan. **04**



HITZAK harpidedunentzat
bi sarrera pare ditu

Pirritx, Porrotx eta Marimototsek
eskeiniko duten emankizunerako

Zozketan parte hartzeko deitu osteguna 14:30ak baino lehen **943 65 56 95** telefono zenbakira.



zozketa



Martxoak 24 - igandea
17:00
Asteasuko kiroldegia



Minbiziarekin bizi behar izan zuen bere azken urteetan, eta pasa den ostiralean hil zen Iñaki Epelde, 54 urterekin. EZEIZA

Mihisearen itzaleko artista

Lagun eta senide artean eman diote azken agurra, Iñaki Epelde artista tolosarrari; gaixotasun luze baten ondorioz hil da

Bere gizatasuna eta isilean egindako lana nabarmendu dituzte gertukoek

Itzea Urkizu Tolosa

Bere sormenak eman zion guztia isilean herriari eskaini eta gero, 54 urte zituela hil zen, pasa den ostiralean, Iñaki Epelde artista tolosarra. Gaixotasun larri batekin bizi behar izan zuen azken urteotan, eta lankide, lagun eta senideen artean eman zioten azken agurra, larunbatean, Tolosako hilerrian.

Margolari nahiz eskulturgile

gisa ezaguna zen Epelde, eta txikitatik zetorkion arterako sena: «Hondarrezko gaztelu lehiaketan, zezen plazan, hiru anaiek sariak irabazi zituztela gogoan dut», dio Joxemi Saizarrek.

Ume jolasetan azaleratutako dohain hori, ordea, hamaika eta bat egitasmotan garatu zuen tolosarrak: inauterietako hainbat karrroza atontzen laguntzen zuen; Et Incarnatus orkestrarekin elkarlanean aritzen zen eszenogra-

fia kontuetan; Uzturpe ikastolako logoa diseinatu zuen; Tolosako Ekinbide Etxeko gazte batzordean, nahiz kartelak egiten jardundakoa da; ZUT arte taldearekin hainbat performance egindakoa da gazte garaian; Euskal Herria plazako sabaia margotu zuen beste artista batzuekin, eta Plaza Berriko kioskoko pinturak bereak dira, besteak beste. Azken urteotan, ETBko langilea zen, eta telebistarako dekoratuak burutzen zituen.

Filosofia eta letrak ikasi, eta 1980az geroztik arte plastikoekin eskaini zituen bere orduak. Artea, ordea, kultur jardunetik haratago zeraman Epeldek; mundua ikusteko modu bat sortu zuen bere baitan. Horrela, eta eskulturrara bideratuz, Tolosan kaleko museo bat sortzeko egitasmoan parte hartu zuen Antxon Elosegirekin, 1970ko hamarkadan. Iazko

irailean ospatutako Eskulturas-tean ere bere alea utzi zuen, antolatzaile eta epaimahaikide gisa.

Bere azken egitasmoetako bat Koldobika Jauregi lagunarekin elkarlanean abiarazi zuen; Alkizako Urmara proiektuan parte hartu zuen, eta bere lanak ere ikusgai daude naturaren erdian ikusgai jarritako museon.

Apaltasuna bizimodu

Eskulturgile, margolari, eta orohar, arte munduko norbanako askorentzat pertsona ezaguna zen Iñaki Epelde, bai sortzaile, eta baita lagun gisa ere. Ez zen, ordea, bere lana bereziki plazaratu zuen pertsona izan, haren lagunek nabarmendu bezala; isileko lanaren artista zen Iñaki Epelde, ezer trukean jaso gabe guztia ematen zuena.

Bere jakintza gainerakoei helarazte horretan, arte adierazpenez

■ **Bideoa.** Ikusi, pasa den larunbatean, Iñaki Epelderen lagun eta lankideek haren azken agurrean artistari eskaintako hitzak.



haratago joan zen tolosarra, ordea. Horrela, irakasle lanetan aritzen zen, kultur etxeko tailerretan; horren aurretik, Laskorain ikastolan ere aritu zen, gainera.

Era berean, arteaz gaindi, bazituen Epeldek beste hamaika aurpegi, eta herrigintzan aritzeko beste hainbat modu. Besteak beste, *Galtzaundi* euskara taldeko irudiaren eta zenbait kartelen diseinuaren egilea zen.

• tolosa@hitza.info



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

↓ Iragarki laburrak

LAN ESKAINTZAK

Ileapaindegia. Tolosako ileapaindegia batean lan egiteko, esperientzia handiko bi pertsona behar dira; bat lanaldi osoan lan egiteko, eta bestea lanaldi ertirako. Interesa dutenek, deitu 625 70 50 59 telefono zenbakira.

LAN ESKAERAK

Garbiketa eta zaintza zerbitzua. Orduka lan egiteko, esperientzia handiko garbiketa eta zaintza zerbitzua eskaintzen du emakume euskaldunak. Etxeko garbiketari, plantxan, sukaldari, nahiz elkarteak, tabernak eta antzekoak garbitzen ere es-

perientzia du. Haurrak eta adinoko pertsonak zaintzeko zerbitzua ere bai. Autoarekin. 699 59 9129 edo 653 72 92 47.

Etxeko lanetarako. Etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa badauka. 943 69 68 82 / 606 52 19 92.

Erreakzioak

Xanti Eraso

Laguna

«Mila irudi eta istorio datozkit burura. Oso tipo ona zen, jatorra, eskuzabala zen jendearekin, beti laguntzeko prest. Ni ateo naizenez, askotan pentsatzen dut, santu laiko batzuk badaudela munduan, eta santu horietako bat izango litzateke niretzat. Beti bere buruarekin fidela izan zen, osoa, eta lagun ona, noski. Artista moduan, pertsonalitate handia zuen, eta artearekin lotuta, Tolosan egin dituen hainbat eta hainbat egitasmo azpimarratzekoak dira; kolaborazio asko egin izan ditu elkarteekin, herritarrekin nahiz kultur etxearekin... Pena handia dut egia esan, eta azkenekoz, 2012ko Eskulturarastean egon nintzen berarekin, epaimahaiari. Hain zuzen orduan hasi nintzen testu bat idazten, berari eta bere familiari bidaltzeko, eta hilabete hauetan guztietan ezin izan dut bukatu. Astero irakurtzen nuen, eta konturatzen nintzen, ez zitzaizkidalda nire bihotzean nituen gauza guztiak paper batean kabitzen. Beraz, dokumentu hori beraietaz helarazi izanaren penarekin geratu naiz; orain jada ez du zentzurik.»

Migel Zeberio

Laguna

«Iñaki gure lagun mina izan da txikitatik. *Karlistadaren kronika* pelikulan, gure bide artistikoa elkarrekin egiten hasi ginen. Orduz geroztik, musikari naizenez geroztik, beti nire proiektu guztietan ezinbesteko parte hartzailea izan da. Eta ez bakarrik arte plastikoan; baizik eta, gehienbat, alde ideologikoan eta filosofikoan. Berak beti zuen, edozein kultur proposamenari azalpen bat emateko modua. Bere antropologia, historia eta kultura jakintza izugarria zen, eta nik ez dut horrelako sarkontasunean edozein gai jorra dezakeen pertsonarik ezagutzen. Bestalde, azpimarratzeko da, behar bada gure herrian jende askok jakin gabe, Tolosa-

ko hamaika txokotan dagoela. Agintari eta erakundeen aldetik, gainera, inork ulertu ez zuen pertsona izan zen, eta neurri batean, errekonozimendurik izan ez duen pertsona. Beti idealismo eta traszendentzia baten atzetik borrokan ibili den pertsona izan da. Euskaltzale amorratua... Pertsona aldaezina, eta beti isilean hor egon dena. Beraz, egin beharko da noizbait zerbaite, isiltasun horretan egon den hori jendeak ezagutu dezatan, merezi baitu pertsona handi baten soslai bizirik izateak.»

Antton Izagirre

Alkate ohi eta Lasgoraingo irakaslea

«Tolosako kulturetzan eragile handia izan dela uste dut. Bere burua ez zuen askotan erakutsi nahi izaten, baina leku asko betetzen zituen. Nik uste dut, gehientsuenok, bere gizatasuna eta patxada nabarmenduko genituzkeela; jendearekin egotea, irizpide desberdinak errespetatzea, berak inoren gainetik ezer jarri gabe, horrelakoa zen. Kulturetzan, pinturan eta eskulturaren mundu horretan, berak egin duen ekarpena sekula ez zaiola airtortu uste dut. Ziuraski, ondorengo urteotan, ekarpen hori aintzat hartua izango da. Izan ere, berak, izatez umila, ez zuen inongo ahaleginik egin obra hori erakusteko. Gizon xumea, umila, apala eta gizatasun handikoa zen.»

Lukas Mendikute

Laguna

«Artista moduan guztiok dakiugu zer zen, baina berarekin nuen harremanean nabarmenduko nukeena, bere dimentsio pertsonala zen. Gu denontzat, pertsona moduan maila izugarria zuen, beti atzean, beti umil eta beti pertsona.»

Aitziber Meabe

Lankidea

«Lagunen laguna, filosofoa, goizero esaldiren batekin eguna alaitzen zuena. Zer gehiago esan? Gauza asko esan daitez-

ke. Pertsona alai eta ona zen Iñaki.»

Antxon Elosegi

Artista

«18 urte zituen zuzen geroztik eza gutzen nuen Iñaki. Tenerifetik eskulturarako egitasmo bat ekarri nuen Tolosara, eta horrelaxe hasi ginen elkarrekin lanean, duela ia 40 urte. Oso triste nago, oso lagun ona zelako. Ona zen, ez bakarrik artista gisa, baita gizon gisa ere. Umila zen, eta oso gauza ederrak zituen. Asko ibili izan nazi berarekin azken urtean, eta gogoan dut nola esan zidan gaixo zegoela. Hortik aurrera zer esango dut ba? Lagun ona, artista ona eta gizon berezia, oso ona. Nik, behinik behin, beti izango dut gogoan.»

Juanlu Garikano

Lankidea

«Joan den astean bisita egin genion, eta esan zigun: 'Zuek zer lankide mota zarete? Ez dida-zue agurrik eta ezer egin!'. Iñaki, egin ez dituzunak, zure gogoak eta zure lanak, egiten saiatuko gara.»

Koldobika Jauregi

Artista eta lankidea

«Iñakirekin izandako harremana oso aspaldiko da, eta anaia modukoak ginen. Oso gizon ona zen, lagunak oso denbora gu-

txian egiteko gaitasuna zuena. Koadroak askotan sinatzen zituen, atzetik, *osasuna eta pa-keajarriaz*. Horrelako gizona zen, lan egin izan baitu, trukean ezer jaso gabe. Ezinezkoa zen gizon harekin eztabaidaren bat izatea, eta azkarregi joan denaren sentipenarekin geratu gara. Zaila izango da hutsune hori betetzea, eta pentsatu nahi dut bere koadro erromaniko horietakoren bat egiten, edo Aralarko artzainekin izango dela, horretan murgilduta, nonbait.»

Txixi Orbegozo

Artista eta lankidea

«Kultur etxean lanean hasi nintzenean, laguna izateaz gain, irakasle bat izan zen gauza askotan. Irakasle lagun moduan eta lanbidez... Arazo bat nuenean, beti bera izaten zen burura etortzen zitzaizkan lehen pertsona, banekielako arazoak konpontzen lagunduko zidala. Beti umiltasunez jokatzeko zuen, eta hori izan zen bere dohainik handiena; gauza handiak egiten zuten, jakituria handiz, baina beti umiltasunez, eta horregatik asko maite nuen. Somatuko dut bere falta.»

Jokin Ansorena

Kultur teknikaria

«Orain dela 25 urte ezagutu nuen, kultur etxean, Tolosara la-

nera etorri nintzenean. Hasieratik konturatu nintzen, Tolosak emango zizkidan gauza on eta-bat izango zela. Bera izan zen kultur etxeko pintura tailerretako sortzaileetako bat, eta irakasle ere bai. Baina horrez guztiaz gain, Iñaki dena izan da Tolosako kulturetzat. Punta-puntako margolaria, eta Tolosan nik ezagutu dudan artistarik handienetako bat. Dena den, bere dohain artistiko eta profesionalak ez dira ezer, bere gizatasunaren aldean. Gauza guztien gainetik, pertsona bezala, munduko txapelduna zen, eta horregatik gaude hemen. Bera bezalako beste norbait aurkitzea zaila dela uste dut.»

Kike Amonarriz

Laguna

«Iñaki pertsona on bat izan da; fina, apala, umila. Artista izugarria on izan da, nik uste dut Euskal Herrian izan dugun artistarik onenetako bat zela. Ziuraski ez da ezagutzera eman, bera halakoa zelako; lana egiten zuen, baina apala, umil. Bere obra eta bere pentsakera ezagutu ez dutenentzat, ezagutzeak merezi duela uste dut. Tolosan, herri-gintzan ezagutu dugu, mila istoriorekin konprometituta. Beti lanerako prest zegoen, eta pertsona irekia zen. Gozamina izan da Iñaki ezagutu izana.»



Jendetza bildu zen, larunbatean, Iñaki Epelderi azken agurra emateko. E. MAIZ

Ereindakoa jaso



Martxelo Otamendi

Kristinarenak dira tituluko hitzak, ez nireak, larunbateko kanposantuko ekitaldi hunkigarriaren bukaerako esker solasean esandakoa.

Horixe izan delako, Iñaki, zure bizitza, eman eta eman, erein eta

erein, besteok jasotzeko. Itzaleko gizona izan zara, espresioaren adiera onean, zintzoan, asko egin eta gutxitan agertzen den horietakoa. Beti laguntzeko prest, beti hitza ahoan eta pintzela eskuan, ez zenuen sekula *ezez*korik esaten.

Gau eskolako irakasle, edozein ekitaldirako txartelak egiten, *Triangulo* eta *Galtzaundi* aldizkarietako diseinuetan, karlisten errodajeetan, eskulturen proiektuan, kultur etxean irakasle, *Euskaldunon Egunkariaren* absolu-

zioaren eskertza jaialdiaren txartela... Non ez zara ibili, Iñaki? Non ez zaitugu topatu laguntzen?

Gogoan dut Europa aldean lan-tzen ari zirenean (arte) kale instalazioak gure herrira ekartzeko aha-leginean, nola jarri zenuten instalazio horietako bat Pablo Gorosabelen bustoa dagoen lorategi txiki horretan, Trianguloko horretan. Memoriak huts egiten ez badit, telebista bat, mahai bat... eta horrelako objektuak ja-

ri zenituzten, kalean zebiltzan harridurarako. Orduko zinegotzi batek, (arte) kale instalazio bat zer zen imajinatu ere egin gabe, udalaren brigadakoei 'traste zahar' haiek kale erditik kentzeko agindu zien. Sekulako barreak egin genituen zinegotzi haren erabakiaren justifikazioarekin. Gure gaiztoan, artikulua barregarria bidali ere egin genuen orduko kronikara.

Orain zauden lekuan, zinegotzi harekin egingo duzu topo, biak

ala biak pertsona jatorrak izanda leku beretsuan ibiliko zaretelako. Txanpionek egiteko moduko film laburra irudikatzen dut, zu zinegotzi hari azaltzen, (arte) kale instalazioa zer den pintura ikasleei eskola ematen zenien goxotasun berarekin, eta zinegotzi zuri esanez: «Ulertu, Iñaki, zu aurreratuegi zenbiltzan guretzat». Eta biak barrezka.

Azken eskaera bat, Iñaki: ez kendu pintura behatz puntetatik. Horrela nahi, eta maite, zaitugu.

Berastegiko udaletzeko berritze lanak bukatuta, herritarrekin batera larunbatean inauguratu zuten eraikina; Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek 25. urteak Tolosan ospatu dituzte

Berastegiko udaletxearen edertasuna

Erredakzioa

Berastegiko udaletxe berritzea inauguratu dute Gasteizten ostean. Larunbatean eman zuten ezagutzera hilabete luze egin den lana. Berastegiko udal ondetzat gaitz, Martin Garitano Gipuzkoako ahalidun nagusia eta Iñaki Errazkin Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako diputatua bertan izan ziren. Herritarrek ere ez zuten hutsik egin inaugurazio ekitaldian, eta guztiak udaletxearen edertasuna nabarmentzen zuten.

Aritz Mujika herriko alkateak foru aldundiari eskerrak ematez gero, herritarrei egunerokoan eman udalaxera gehiago joateko deia egin zien. Egiten diren berri batzar eta bilobetan parte hartuz, guztien artean erabaki behar dute la herria nabarmentzen zuten. Udalteko handia dena, lehen jasti horetan egin izan dute gurtz kompondu. Eta bigarren solairua eta goiko ganbarara aurrerago konponduko dituzte. Udaletxeko hainbat material mantentzea egin dituzte zahar-berritze, eta ikusgarritasuna dantze uolaletxean.

Ondu berean, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak beraien 25. urteurrena ospatzen ari ziren Tolosako Trianguilo plazan. Kolorez jantzi zituzten herriko kaleak. Kilometroak 2013 ekimenarekin elkarlanean antolatuta zuten eguna, eta bi soto eskaini zituzten Leizor aretoan. Baina, Trianguilo plaza izan zen txikienean eta hauen gurusean bilgune. Puzga-

ri, jolas, musika eta pintxo artean hili ziren herritarrikok.

Bestetiki, nekazaritzak eta arrantzak bat egin zuten Tolosako Zerkausian. Sukaldea txiki gastronomia izan zen, eta kasu honetan, Getariako berdelarekin batera eskualdeko baserriarren garaiak produktuek dastatzen zuten izan zen. Zerkausio postuetan erositako barazkiekin prestatu zuten berdea, eta ondoren herritarren artean banatu zituzten pintxoak.

Galtzaundi Euskara Taldea Mintzalaguna egitasmoa aurrera eramaten ari da, eta askaria egin dute Oargi elkartearen. Euskara praktikatzeko beharra dutenak elkartzen ditu, eta 2012-2013 ikasturtean, 55 pertsonak eman dute izena eta hamahiru talde osatu dira. Astero ostero elkartzen dira euskaraz hitz egiteko.

Tolosako Udala Udalerri Euskararen Mankomunitatean sartuko batzaria izan zen Orion, larunbatean. Bertan Tolosa Uemako kideetat onartu izan zen, beste lau herririkin batera.

Bukartzeko, Eskola Txikien kirol tokapetak egin zituzten, Tolosako Usabal kiroldegian. Hamabost eskola txikiakoko LH1, 4, 5 eta 6. mailako neska-umeak elkartu ziren. Lokotzak, harrapaketa, birleta, baloi eserria nahiz aserriak oloak berazko jolasen arizta ziren.

luzi asteburuko argazki, bideo eta albiste guztiak sarean: tolosaldea.hitza.info



Tolosa Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek Tolosan ospatu dute 25. urteurrena Kilometroak 2013 ekimenarekin batera. Pailazoek Leizor aretoan bi emandakid eskaini zituzten. [»](#)



Tolosa Mintzalagunako partaideek eskaria egin zuten Oargi elkartearen. Egitasmoak euskaraz praktikatzeko beharra dutenak elkartzen ditu, eta 55 pertsonak emana dute izena. Astero elkartzen dira euskaraz hitz egiteko. [»](#)



Tolosa Sukaldea egitasmoaren barnean, bertako barazkiekin prestatutako berdea banatu zuten. [»](#)

Zure kafea prestatu eta bero mantendu egun osoan!

www.mauka.eu

sartu
tolosaldea.hitza.info
 eta **Itxiti**
 Komunen bidetok

www.hitza.net



Berastegi Larunbatean inauguratu zuten Berastegiko udaletxe berritua. Aritz Mujika alkatearekin batera, Martin Garitano Gipuzkoako ahalidun nagusia eta Iñaki Errazkin Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako diputatua izan ziren. Udaletxearen ondarea mantendu egin dute bertako hainbat elementu zahar-berrituz. [»](#)



Tolosa Tolosako Udala, larunbatez geratzik Udalerri Euskararen Mankomunitateko kide da. Uemak Orion egin zuten batzarian izan zen onartu Tolosa. [»](#)



Tolosa Eskola txikien kirol tokapetak izan ziren, Usabal. Hamabost eskola txikiakoko neska-umeak elkartu ziren kirolen bidez elkar ezagutzeko. [»](#)

harpidedun izateak badu saria zozketa

1 **Ostatu Hernialde Jatetxea**
 Bi laguntzako bina bazkari edo afari
 Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 51
 Hernialde
 Tel. 943 65 24 96

2 **Euskal Herriko Plaza**
 Sorta bat
 Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 52
euskal herriko plaza
www.euskalherriko plaza.com

3 **Eureka zientzia museoa**
 Bi laguntzako bina sarrera
 Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 53
 Mikeltegi pasealekua, 43-45
 Tel. 943 01 24 78
www.eurekamuseoa.es

Parte hartzeko denbura edo datuak: 902-02 02 40 edo sartu tolosaldea.hitza.info helbidean ZOZKETAK atalean.
 Asteburuko ostegun, astearteko eta ostegun goizean, egun bitan bitan, zozketak osteguneko 10:00etan.

hitza

Kirolak**↓ Kirol emaitzak****PILOTA**

LEHEN MAILAKO BINA KAKO PILOTA TXAPELKETA
Ligaxka, 13. jardunaldia
Irujo-Zabala 22
Xala-Barriola 18
Bengoetxea VI.a-Apraiz 13
Ezkurdia-Zubieta 22

Sailkapena

1. Irujo-Zabaleta	13	10
2. Olaizola II-Zabala	13	9
3. Bengoetxea VI.a-Beroiz	13	9
4. Berasaluze-Albisu	13	6
5. Titin-Merino	13	6
6. Ezkurdia-Zubieta	13	5
7. Xala-Barriola	13	4
8. Arretxe-Begino	13	3

Ligaxkako azken jardunaldia

Titin-Merino
Bengoetxea VI.a-Beroiz
Xala-Barriola
Berasaluze-Albisu

BIGARREN MAILAKO PILOTA TXAPELKETA

Ligaxka, 10. jardunaldia
Olazabal-Peñagarikano 22
Lemuno-Aretxabaleta 7

Sailkapena

1. Gorka-Zezilio	10	9
2. Apeztexea-Larrinaga	10	7
3. Rico IV-Untoria	10	6
4. Tainta-L. Galartza	10	5
6. Olazabal-Arruti	10	3

Ligaxkako azken jardunaldia

Rico IV-Untoria
Olazabal-Arruti

BETERANOEN XARE TXAPELKETA

Morcuende-I. Lasa (2)	15/15
Lasa-Beitia (0)	2/4
Olano-J.M. Diaz (1)	15/8/4
A. Lasa-Cosio (2)	14/15/10

Hilaren 24an, 16:30ean, Irurako Trinketea

J. Balerdi-I. Yurrita
J. Lasa-I. Beitia
I. Caballero-I. Artola
Morcuende-I. Lasa

SHARE ELKARTEA SARIA

A. Gutierrez-J. Larrarte	40
M. Iturbe-U. Urkola	30
J. Lopetegui-J. Apeztegia	40
A. Lizaso-D. Vinuesa	38

Hilaren 24an, 18:00etan, Irurako Trinketea

Limousin-U. Sarasola
A. Gutierrez-J. Larrarte
Santano-A. Artola
M. Iturbe-U. Urkola

ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA 24. jardunaldia
Ibarra-Inter Eder 1-1
Laskorain-Santurtzi 3-5
Egintza-Hirukide 6-3

Sailkapena

1. Aurrera V.	56p
2. Ibarra	55p

3. Bilbo	51p
4. Santurtzi	49p
5. Hirukide	41p
7. Laskorain	35p
12. Egintza	25p

Hurrengo jardunaldia

Sestao-Ibarra
Hirukide-Laskorain
Bilbo-Egintza

FUTBOLA

ERREGIONAL OHOREZKOA 26. jardunaldia
Beti Gazte-Tolosa 2-2

Sailkapena

1. Oiartzun	59p
2. Hernani	55p
3. Real Union	52p
8. Tolosa	35p

Hurrengo jardunaldia

Tolosa-Mondragon

SASKIBALOA

LEHEN MAILA 20. jardunaldia
Mikeldi 56
Bide Bide 66

Sailkapena

1. Asesoria SAF	16-6
2. Askartza	16-6
3. Lizuan.com	15-7
6. Bide Bide Donostia	13-9

Hurrengo jardunaldia

Bide Bide Donosti-Askartza

SOKATIRA

GOMA GAINEKO 8X8KO EUSKAL HERRIKO SOKATIRA TXAPELKETA, 560 KILOTAN
Finala

1. Ibarra	8 puntu
2. Abadiño	7 puntu
3. Napurrak	6 puntu
4. Sokarri	5 puntu
5. Iparralde	4 puntu
6. Basaburua-Imotz	3 puntu
7. Baiona	2 puntu
8. 6 Conceyos	puntu bat

GOMA GAINEKO 8X8KO EUSKAL HERRIKO SOKATIRA TXAPELKETA, 500 KILOTAN

Azken sailkapena	
1. Ibarra	8,5 puntu
2. Badaiotz	6,5 puntu
3. Bizindar	puntu bat

*** Goma gaineko azken jardunaldia, 8X8ko mistoen 600 kiloko, martxoaren 23an, larunbatean, jokatu da Arriorriagan (Bizkaia).****MENDI LASTERKETA**

III. LARRAUL-ERNIO-LARRAUL LASTERKETA GIZONEZKOEN SAILKAPENA	
1. Iban Letamendia	1.23.23
2. Abderrahim El Qayed	1.24.10
3. Iraitz Arruabarrena	1.25.15

Emakumezkoen sailkapena

1. Aitziber Ibarbia	1.37.37
2. Mari Kruz Aragon	1.45.36
3. Nerea Amilibia	1.46.04

Ibarrako Sokatira Taldeak Euskal Herriko bi txapel irabazi ditu Abadiñon

Goma gaineko denboraldia martxoaren 23an, larunbatean, amaituko da 600 kiloko mistoen txapelketarekin

Asier Imaz Ibarra

Goma Gaineko 8x8 Euskal Herriko Sokatira Txapelketaren azken txanpara Ibarra oso indartsu iritsi da. Iragan larunbatean, Abadiñon, bi txapel zeuden jokoa, eta biak ibarrentzat izan ziren. 8x8ko aurtengo denboraldia kontuan hartzen bada, Ibarrako Sokatira Taldeak guztira lau txapel irabazi ditu.

Txapelik landuena 500 kilotan

lortutakoa izan zen, hiru jardunaldiko ibilbidea baitzeraman berearekin. Hiru asteburutan, Ibarra, Badaiotz eta Bizindar taldeak ibili dira nor baino nor. Tiraldiak hasi aurretik Ibarrako taldeak puntu bateko aldea ateratzen zion Badaiotzi. Horri eusteaz gain, beste puntu bateko abantaila lortu zuen Abadiñon. Badaioztan atzetik, hirugarren postuan, Bizindar taldea sailkatu zen. Larunbateko garaipenarekin, Ibarrako emakumeek denboraldiko bigarren txapela eskuratu zuten.

Abadiñoren etxean


560 kiloko txapelketan, saio bakoarreko jardunaldia jokatu zuten, eta ondorioz, ligaxka sistema erabili zen postuak finkatzeko. Tiraldi

di guztiak irabazi zituen Ibarrak, eta ondorioz, txapela eskuratu zuten. Bigarren postuan Abadiño sailkatu zen. Bi talde hauen arteko lehia ez zen joan den astekoa bezain ikusgarria izan. 600 kiloko finalean, Ibarrak eta Abadiñoek berdindurik amaitu zuten, eta txapela kitarako tiraldietan erabaki zen. Herritarren aurrean aritu ziren ibararrak, eta azken bi tiraldiak euren aldera eramatera lortu zuten. Azken asteburu honetan, Abadiñoak aritu ziren euren herritarren aurrean, baina ezin izan zuten kitarakora iristerik lortu.

Larunbatean lortutako garaipenarekin, Ibarrako gizonak denboraldiko bigarren txapela lortu zuten 8x8ko modalitatean.



Letamendia oñatiarra eta Ibarbia zizurkildarra, helmugan. JONE AMONARRIZ



Tolosa eta Jaka. HITZA

Letamendia eta Ibarbia izan dira helmugan lehenak

Larraul-Ernio-Larraul lasterketan El Qayed tolosarra bigarren izan da, eta Amilibia zizurkildarra, hirugarren

Imanol Garcia Landa Larraul

Iban Letamendia oñatiarra eta Aitziber Ibarbia zizurkildarra izan ziren herenegun korritu zen III. Larraul-Ernio-Larraul lasterketako irabazleak.

Gizonezkoetan bigarrenen Abderrahim El Qayed tolosarra izan zen, eta hirugarrena Iraitz Arruabarrena lasartearra.

Emakumezkoetan bigarrenen Mari Kruz Aragon murchantearra izan zen, eta hirugarrena Ne-

rea Amilibia zizurkildarra. Lasterketa oso gogorra izan zela azaldu dute antolatzaileek, Ernioen elurra baitzegoen. Gizonezkoetan Ernioaren gailurrera hamabost segundoko tartearrekin iritsi ziren lehen hiruak. Gero, Letamendiak hartu zuen abantaila, eta helmugara bakarrik iristea lortu zuen, bigarrenari ia minutuko tartea atereaz. Ibarbiak, aldiz, hasieratik hartu zuen aurrea, eta lehia bigarren postuaren borrokan ikusi zen, Aragonen eta Amilibiaren artean.

Antolatzaileek azaldu dutenez, jende ugari izan zen proba ikusten. Parte hartzaileei dagokienez, guztira 94 korrikalari irten ziren, nahiz eta izena gehiagok eman. Horietatik 88k lortu zuten lasterketa amaitzea.

Jaka-Tolosak Euskadiko Pilota Txapelketa irabazi dute

A. Imaz

Erik Jaka lizartzarrek eta Xabier Tolosa anoetarrak Euskadiko Txapelketa irabazi dute Bergaran, Sorluzeko Andreu-Aldapearen aurka 22-14 gailenduz. 18 eta 17 urteko pilotariak maisutasun handiarekin irabazi dute finala.

Udaberri Txapelketa

Aurrera Saiazeko pilotariak sei partida jokatu zituzten asteburuan. Kadeteetan, Agirretxe-Eloak 22-12 galdu zuten Azkoitiaren aurka. Juniorretan, Mugika-Jauregik 18-22 galdu zuten, eta baita Etxebe-Galarragak, 9-22ko emaitzarekin. Nagusien mailan, azkenik, Labaka-Telletxeak 22-7 galdu zuten Sorluzeren aurka.

«Hondakinen Mahaiak lanean jarraituko du»

Tolosako udal gobernuak «alderdikeriaz jokatzeari» eta «herriari kaltea eragitea» egotzi die mahaitik atera direnei

EAJ eta PSE-EE alderdiek eta Tolosa Txukun plataformak mahaia utzi dute

Iñigo Terradillos Tolosa

Pil-pilean dagoen gaia da hondakinena, eta batik bat, batzuen eta bestearen artean sortzen den eztabaidarengatik. Eztabaida horren azken liskarra Tolosako Udaleko Hondakinen Mahaian eman da. EAJ eta PSE-EE alderdiek eta Tolosa Txukun plataformak mahaia uzteko erabakia hartu dute «gardentasun falta» egotzita. Tolosako Udalak, berriz, «harriduraz» hartu du erabaki hori, eta «alderdikeriaz jokatzeari» egotzi die mahaia utzi dutenei.

2012 urteko uztailetik zegoen martxan Hondakinen Mahaia. Tolosako Udal Gobernuaren osatzen duten Bilduk eta Aralarrek gogoratu dutenez, bi baldintza betetzeko ardurarekin sortu zen: «hondakinak gaika banatzea derri gorrezko bilakatuko zuen sistema bat ezartzea, eta gaika bilatzeko tasak 2014ean %70era iris-

tea eta 2016an, %85era». Hala, mahaiaren filosofia «adostasunean lan egitea» izan dela hasieratik azaldu dute bi alderdiek. «Mahaiaren azken bileran enpresa kualifikatu batek Tolosako hondakinen sistemaz azterketa bat egiteko ikerketaren pleguak adostu ziren, eztabaida eta iritzitrukaketa luze baten ondorioz».

Horregatik, Bilduk eta Aralarrek ez dute ulertzen zergatik erabaki duten mahaia uztea: «Gainera, EAJko kide bati esker lortu zen pleguak onartzea, berak botatako ideia baten bidez hautsi baitzen blokeoa». Tolosako Udal Gobernuak, erabakia ez ulertzetik haratago, mahaia utzi izana «Tolosari ez baino Gipuzkoari erantzuten dion estrategia» dela uste du. Hondakinen Mahaia uzteko eman dituzten arrazoiei erantzunez, «gezur, manipulazio eta alderdikeria jokoek» herriari «kaltea eta nahasmena» besterik ez

diela eragiten adierazi dute. Era berean, «orain arte bezala, gardentasun osoz» lanean jarraituko duela adierazi du Tolosako Udalak. «Mahaiak beti bezala atek irekiak izango ditu, joan direnak berriz ere bueltan etorri nahi badute, bai eta herritar ororentzat



Gezur, manipulazio eta alderdikeria jokoek herriari kaltea besterik ez diote eragiten»

IBAI IRIARTE
Tolosako alkatea

«Sistema inposatu nahi badute jendea aurka dagoela jakinik, euren ardura izango da»

PATXI AMANTEGI
Tolosa Txukun

«Hasieratik argi ikusten zen mahaiaren helburua zein zen; manipulatuak sentitzen gara»

OLATZ PEON
EAJko zinegotzia

«Hondakinen ikerketa guztiak norabide berean zuzenduak izan dira, beti atez atekora»

JOSE IGNAZIO ASENSIO
PSE-EEko zinegotzia



Tolosako udal gobernuko ordezkariak atzo eginiko agerraldia. HITZA

ere, eta deialdiak eta informazioa bidaltzen jarraituko du».

«Ez digute informazioa pasa»

Tolosa Txukun plataformako Patxi Amantegik adierazi duenez, «7.000 tolosarren ordezkartza» dute. Hala eskatutako informazio osoa «ez pasa izana» leporatzen dio udalari: «Mahaiaren guk bozka izan arren, ez digute eskatutako informazioa ematen; mankomunitateari dagokion informazioa eskatzen genuen bitartean, prentsaren bidez jakin dugu hainbat udalek atez atekoaren alde egin dutela». Halaber, hondakin bilketaren inguruan egin dituzten azterketekin ere ez dago ados plataformako kidea: «Ikerketak egin dituzten Spora eta Garbitania enpresak, batetik, azalpenik gabe egiten dute atez atekoaren alde, eta bestetik, ez dute konparatu atez atekoa bosgarren edukiontzirekin, baizik eta atez atekoa gaur egungo egoerarekin alderatu dute».

Tolosa Txukunen ustez, Tolosako Udalak «epeak eta organigrama zehaztuta du, eta ez dute aldatu nahi. Beraz, gurekin eta guk ordezkatzeko ditugun 7.000 tolosarrekin atera nahi dute argazkia, baina, guk ezetz esaten dugu, sistema inposatu nahi badute, jakinik jendea kontra dagoela, jakinik garestiagoa dela, eta jakinik ez dela gehiago jasoko, euren ardura izango da». Bestalde, Amantegik gehitzen duenez, «bat batean aldaketa egon da Gipuzkoako osoan»; «Zenbait gauza adostuta

zeuden hainbat herritan, eta adostasunak hautsi eta bizkor hasi dira atez atekoarekin, eta ez dakigu zergatik gertatu den».

«Gardentasun falta izan du»

EAJ alderdiak adierazi duenez, berriz, «gardentasun falta» izan da Hondakinen Mahaia utzi izanaren arrazoi nagusia. «Hasieratik argi ikusten zen mahaiaren helburua zein zen, eta horregatik manipulatuak sentitzen gara, erabakia hartua dutela uste dugulako», azaldu du Olatz Peon EAJko zinegotziak. Hala, «mankomunitateko erabakiak uniliteralki hartzen dituztela eta eskatutako informazioa ez dietela pasatzen» adierazi du. «7.000 herritarren sinadurak kontuan hartu behar» direla, eta aurrerantzean ingurumen batzordean jarraituko dutela «kontuak eskatzen» dio Peonek.

«Mahaia pantomima da»

Jose Ignazio Asensio PSE-EEko zinegotziak, bere aldetik, Tolosako Udal Gobernuaren asmoa «argi ikusten dela» adierazi du. «Hondakinen Mahaia zertarako osatu den pantomima bat izan da; hondakin bilketaren inguruko ikerketa burutzeko pleguak, esaterako, norabide berean egon dira zuzenduak beti, atez atekora». Hala, euren jarrera beti bosgarren edukiontzirekin aldekoa izan dela, eta horrela jarraituko dutela, eta tolosarren sentimendua ere «atez atekoaren kontrako» dela adierazi du Asensio.

Irudia ◉ Oresa



ZERO ZABOR HERRIAREN LEHEN EMAITZAK

Duela sei hilabete egin zuten Oresan lehen karakterizazioa, astebeteetan herriari jasotzen den hondakina neurtzeko. Bada, jasotakoaren %30 izan zen errefusa, eta %70 birziklagarria. Iragan ostira leian egin zuten bigarren karakterizazioa, eta ho-

rrekin, Oresa zero zabor herri denetik eman den bilakaera aztertu nahi dute. Datuak oraindik ez dituzten arren, Eneko Maioz alkateak adierazi duenez, argi ikusi da bai ontzi arinen kopurua bai eta errefusarena era jaitsi dela. ir.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaundi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Maxurrenea atzera herriari itzultzea eskatu dute leitzarrek

Nafarroako Gobernuari Espainiakoarekin duen akordioa haustea eskatu du Leitzako Udalak herritarren babesarekin

Iñigo Terradillos Leitza

Leitzako Udalak herriko eragile desberdinen eta herritar «gehien» babesarekin Maxurrenea eraikina herriari itzultzeko eskatu dio Nafarroako Gobernuari. Udalaren eskaera historikoari erantzun, eta horrela Leitzako kultur azpiegitura ezari irtenbidea ematea espero du udalak.

Egun, Guardia Zibilarren kuartel funtzioa betetzen du eraikina. Espainiako eta Nafarroako Gobernuen arteko arrendamendu kontratua 2003ko urrian sinatu zuten, eta baldintzen artean 10 urteak bete ondoren Nafarroako

Gobernuak akordioa bertan behera uzteko ahalmena zegoen. Aurten hamar urte betetzen direla baliatuz, Leitzako Udalak Nafarroako Gobernuari Maxurrenea eraikina udalari baldintzarik gabe eman diezaiola eskatuko dio. Hala onartu zuen iragan ostiralean onarturiko mozioan.

Era berean, eraikinaren erabilera kultur azpiegitura ezari irtenbidea eskaintzeko bideratu behar dela aldarrikatuko du udalak. Horretarako Nafarroako Gobernuari arrendamendu kontratua bertan behera utz dezala eskatzen dio.

Leitzako eragile gehienek eta norbanako ugari Maxurrenea herrira itzultzeko emango diren urrats guztietan udalari babes osoa emateko borondatea adierazi dute. Halaber, Nafarroako Parlamentura zabalduko dute asmoa, eta talde desberdinekin elkartzeko nahia adierazi dute,



Iragan ostiralean elkartu ziren eragileak eta norbanakoak Maxurrenea itzultzeko eskaera eginez. I.T.

euren atxikimendua lortzeko, eta horrela «Parlamentuak Nafarroako Gobernuari Maxurrenea Leitzari itzul diezaiola eskatzeko». Sinadura bilketa ere egin asmo dute, «Nafar Gobernuari eskaera bideratzeko».

Maxurrenea eraikinaren erabilera ibilbide luzea du, 1963an Amazabal Patronatua sortu zenetik. Liburutegi publiko bezala erabili zuten, ezinduentzat zen-

troa, ikasleentzat erresidentzia, Leitzako FP.. 1975. urtean dohaintzan eman zioten Amazabal fundazioari eraikina, erresidentzia bezala, edota hezkuntza edo gizartera bideratutako bestelako ekimenetarako izateko baldintzarakin.

Hiru urte eta gero, Nafarroako Gobernuari eman zion dohaintzan fundazioak, beti ere eurentzat utzitako erabilera ber-

dinekin mantentzeko baldintzarakin. 1998. urtean Leitzako Udalak Maxurrenea itzultzeko eskatu zion Nafarroako Gobernuari.

Erabilera zehazten ari zirela argudiatuta eskaera bertan behera geratu zen. Gauza bera gertatu zen ondorengo eskaeretan ere, azkenik, Nafarroako Gobernuak erabilera baldintzak hautsi eta Guardia Zibilarren kuartel izateko utzi zuen arte.

Agurrak



Zorionak aitaxo eta Irati!

Ondo pasa eta muxu potoloak Saioa, Oihane eta amatxoren partetik.

Agenda

GAUR

DEIALDIK

■ **Anoeta.** Atez ateko hondakin bilketaren gizarteratze prozesua dela eta, gaur, 19:00etan, bilera izango da. Kasu honetan, gaztelera izango da, eta Hozpel, Isasti, Errotarburu eta San Juan kaleko bizilagunei zuzendua izango da.

■ **Amasa-Villabona.** Gaur, hondakin gizarteratze prozesuko bilera izango da Oriamenditik Etxe Ondora bizi diren herritarrei zuzendua. Gaztelera izango da, eta 19:00etan Mintzolan izango da.

■ **Amasa-Villabona.** Bazkide kopurua handitzeko, hilaren letik Olaederra Kiroldagiko matrikulazioa dohainik da bazkide berrientzat (aurrez bazkide izan eta baja eman zutenentzat ez da doan). Tarifa berriak eta

2013ko egutegia www.villabona.net/webgunean kontsultatu daiteke.

■ **Ikaztegieta.** Gaur, hilak 19, Burullarrek eta ginekologiako minbizia goiz detektatzeari buruzko hitzaldia izango da, 18:00etan, udaletxean.

■ **Tolosa.** Atsedena taldeak mendi irteera antolatuta du Leaburura hilaren 24rako. 3.mailatik 6.mailara bitarteko gazte txoentzat izango da. Apuntatzeko hilaren 20a baino lehen 675 70 66 54 edo 62712 20 73 telefono zenbakietara deitu behar da.

■ **Tolosa.** Gaur, hilak 19, Antxon Bandres Bidaieraren Txokoa, Ibon Azpilikuetaoren eskutik, *Bidaia argazkilaritza* tailerra izango da, 19:00etatik 21:00etara.

■ **Zizurkil.** Gaur, hilak 19, Atez ateko hondakin bilketaren gizarteratze prozesua dela eta,

Ernio bidekoentzat bilera izango da, Atxulondon. 19:30ean hasiko da.

■ **Zizurkil.** Kaxkagor elkarteak antolatuta, *Nire haurrak jotzen du, nire haurrak jotzen dute* hitzaldia eskainiko du Nerea Mendizabalek, gaur, 17:30etik aurrera izango da Otañoko mediateka gelan.

Farmaziak

GAUR

■ **Ibarra.** Egunekoa eta gauuekoa: Lejeune, L. Euskal Herria kalea, 6. Tel.: 943 67 32 74.

■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. Telefonoa: 012.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.